



189 EREDUA AURKEZTEKO DISEINU FISIKO ETA LOGIKOAK

ERREGISTROEN AZALPENA

Aitortzaile bakoitzeko, bi erregistro mota desberdin sartuko dira. Horiek lehen posizioagatik bereiziko dira irizpide hauen arabera:

1. mota: Aitortzailearen erregistroa: Identifikazio datuak eta aitortenaren laburpena. 1. motako erregistroaren diseinua, apartatu hauetan eta foru agindu honetako eranskinean aurrerago azaltzen dena.

2. mota: Aitortuen erregistroa. 2. motako erregistroaren diseinua, apartatu hauetan eta foru agindu honetako eranskinean aurrerago azaltzen dena.

Aurkezpenaren ordena erregistro motaren arabera izango da. 1. motarako, erregistro bakarra egongo da, eta 2. motarako, berriz, aitortuena jasotzen diren aitortuak adina erregistro.

Eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerretik hasiko dira betetzen eta eskuinaldetik zuriunez beteak agertuko dira. Hizki larriak erabiliko dira, karaktere berezirik gabe eta bokaletan azenturik jarri gabe.

Hizkuntzaren karaktere bereziak adierazteko ISO-8859-1 kodeketa erabiliko da. Horrela, «Ñ» letra 209 ASCII balorea izango da (Hex. D1) eta «Ç» letra (zedila maiuskula) 199 ASCII balorea (Hex. C7).

Eremu numeriko guztiak eskuinaldetik hasiko dira betetzen eta ezkerretik zeroz beteak agertuko dira, zeinurik gabe eta trinkotu gabe.

Eremuaren azalpenean bestelakorik esaten ez bada, edukia eremu guztiek izango dute. Edukirik ez badute, eremu numerikoak zeroz beteko dira, eta alfabetikoak eta alfanumerikoak bete gabe utziko dira.



189 EREDUA

A. 1. motako erregistroa: AITORTZAILEEN ERREGISTROA

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
1	Numerikoa	ERREGISTRO MOTA «1» konstantea.
2-4	Numerikoa	AITORPEN EREDUA «189» konstantea.
5-8	Numerikoa	EKITALDIA Aitortzen den zerga ekitaldiaren lau zifrak jarriko dira.
9-17	Alfanumerikoa	AITORTZAILEEN IFZ Aitortzailearen IFZ jarriko da. Eremu hau eskuinaldetik hasiko da betetzen, azken posizioa kontrol karaktereak hartuko du, eta ezkerreko posizioak zeroz beteko dira.
18-57	Alfanumerikoa	AITORTZAILEEN SOZIETATE IZENA Sozietate izen osoa jarriko da, anagramarik gabe. Inoiz ere ez da jarri behar eremu honetan izen komertzialik.
58	Alfabetikoa	EUSKARRI MOTA Gako hauetako bat jarriko da: «C»: Informazioa CD-Rean aurkezten bada. «D»: Informazioa disketean aurkezten bada. «T»: Informazioa telematikoki aurkeztuz gero.
59-107	Alfanumerikoa	HARREMANETARAKO PERTSONA Harremanetarako pertsonaren datuak. Eremu hau bitan banatzen da: 59-67: Telefonoa: Bederatzi posizioko eremu numerikoa. 68-107: Deiturak eta izena: Jarri lehen deitura, tarte bat, bigarren deitura, tarte bat, eta izen osoa, ordena horretan nahitaez.
108-120		ZURIUNEAK
121-122	Alfabetikoa	AITORPEN OSAGARRIA EDO ORDEZKO AITORPENA Aurkezten dena bigarren aitorten bat edo ordezko aitorten bat denean, honako eremu hauetako bat beteko da derrigorrez: 121: Aitorpen osagarria: «C» jarriko da baldin eta aitorten hau aurkezteko arrazoia lehendik aurkeztutako ekitaldi bereko beste aitorten batean aipatu gabe utzi ziren ordainketak sartzea bada. 122: Ordezko aitortzena: «S» jarriko da baldin eta aitorten hau aurkezteko arrazoia ekitaldi bereko aurreko aitorten bat baliogabetu eta erabat ordezteka bada. Ordezko aitortenak aurreko aitorten bat bakarrik baliogabetu dezake.

123-135

ZURIUNEAK

136-144

Numerikoa

AITORTU KOPURUA, GUZTIA

Aitortzaile honentzat euskarrian aitortuen zenbat erregistro sartu diren adieraziko da. Aitortu bat erregistro batean baino gehiagotan agertzen bada, zerrendaturik ageri den adina aldiz zenbatuko da. (2. motako erregistroen kopurua).

145-167

Alfanumerikoa

BALORAZIOA

23 posizioko eremu alfanumerikoa.

Balorazioa eremuan (108tik 123ra arteko posizioetan) adierazitako zenbatekoen batura osoa jarriko da, aitortuen erregistro kopuru osoari dagokiona. Aitortuen erregistro horiek betetzean «N» jarri bada balorazioaren zeinua eremuan (2. motako erregistroaren 108. posizioan), minus zeinuarekin konputatuko dira zenbatekoak, batura horren ondorioetarako.

Eremu hau bitan banatuta dago.

145 zeinua: eremu alfanumerikoa. Aipatu dugun batuketaren emaitza 0 (zero) baino txikiagoa denean beteko da; «N» bat jarriko da kasu horretan. Beste edozein kasutan, eremu honen edukia hutsune bat izango da.

146-167 zenbatekoa: 22 posizioko eremu numerikoa. Gorago aipatu den batuketatik ateratako balorazioa jarriko da.

Zenbatekoak eurotan jarri behar dira. Balorazioak ez du inolako zeinurik eramango aurretik (+/-), ezta koma hamartarrik ere.

Eremu hau bitan banatuta dago.

146-165 Balorazioaren zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarri.

166-167 Balorazioaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarri.

168-500

ZURIUNEAK

* Edukirik ez duten eremu numerikoak zeroz beteko dira.

* Edukirik ez duten eremu alfanumeriko/alfabetikoak zurienez beteko dira.

* Eremu numeriko guztiak eskuinaldetik hasiko dira betetzen, eta ezkerraldeetik zeroz bete behar dira.

* Eremuaren azalpenean bestelakorik esaten ez bada, eremu alfanumeriko/alfabetiko guztiak ezkerraldeetik hasiko dira betetzen, eta eskuinaldeetik zurienez beteko dira. Hizki larriak erabiliko dira, karaktere berezirik gabe eta bokaletan azenturik jarri gabe.



189 EREDUA

B 2. motako erregistroa:

AITORTUAREN ERREGISTROA

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
1	Numerikoa	ERREGISTRO MOTA «2» konstantea.
2-4	Numerikoa	AITORPEN EREDUA «189» konstantea.
5-8	Numerikoa	EKITALDIA 1. motako erregistroan posizio hauetarako adierazitakoa jarriko da.
9-17	Alfanumerikoa	AITORTZAILEEN IFZ 1. motako erregistroan posizio hauetarako adierazitakoa jarriko da.
18-26	Alfanumerikoa	AITORTUAREN IFZ Aitortuak Espainian emandako IFZ badu, honela beteko da: Pertsona fisikoa izanez gero, aitortuaren IFZ jarri behar da zerga betebeharrak jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduak, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, ezarritako arauak jarraituz. Aitortua pertsona juridikoa edo errenten esleipen erregimenera bildutako entitatea bada (ondasun komunitatea, sozietate zibila, banatu gabeko herentzia...), entitateari dagokion identifikazio fiskaleko zenbakia jarri behar da. Zerga izaera duten edo zerga alorrean garrantzitsuak diren harremanetan 14 urtetik beherako adingabeak identifikatzeko, 14 urtetik beherakoaren datuak jarriko dira (identifikazio fiskaleko zenbakia, barne), baita legezko ordezkariarenak ere. Eremu hau eskuinaldetik hasiko da betetzen, azken posizioa kontrol karaktereak hartuko du, eta ezkerreko posizioak zeroz beteko dira. Espainian emandako identifikazio fiskaleko zenbakiekin bakarrik bete behar da.
27-35	Alfanumerikoa	LEGEZKO ORDEZKARIEN IFZ Aitortuak 14 urte baino gutxiago baditu, legezko ordezkariaren IFZ jarriko da eremu honetan (aita, ama edo tutorearena). Eremu hau eskuinaldetik hasiko da betetzen, azken posizioa kontrol karaktereak hartuko du, eta ezkerreko posizioak zeroz beteko dira. Beste edozein kasutan, eremu honen edukia hutsuneak izango dira.
36-75	Alfanumerikoa	AITORTUAREN DEITURAK ETA IZENA EDO SOZIETATE IZENA

Pertsona fisikoak badira, jarri lehen deitura, tarte bat, bigarren deitura, tarte bat, eta izen osoa, ordena horretan nahitaez. Aitortuak 14 urte baino gutxiago baditu, 14 urtetik beherakoaren deiturak eta izena jarriko dira eremu honetan.

Pertsona juridikoak eta errenten esleipen erregimenera bildutako entitateak badira, haien sozietate izen osoa jarri behar da, anagramarik gabe.

76-77

Numerikoa

PROBINTZIAREN KODEA

Aitortua egoiliarra bada, edo egoiliarra izan gabe, lurralde espainiarrean establezimendu iraunkorraren bidez jarduten badu, aitortuaren helbide fiskalari dagokion probintziaren edo, hala bada, hiri autonomoaren bi digitu numerikoak jarriko dira, honako zerrendaren arabera:

ARABA	01	LEON	24
ALBACETE	02	LLEIDA	25
ALACANT	03	LUGO	27
ALMERIA	04	MADRIL	28
ASTURIAS	33	MALAGA	29
AVILA	05	MELILLA	52
BADAJOS	06	MURTZIA	30
BARTZELONA	08	NAFARROA	31
BURGOS	09	OURENSE	32
CACERES	10	PALENTZIA	34
CADIZ	11	PALMAS, LAS	35
KANTABRIA	39	PONTEVEDRA	36
CASTELLO	12	ERRIOXA	26
CEUTA	51	SALAMANCA	37
CIUDAD REAL	13	S.C.TENERIFE	38
KORDOBA	14	SEGOVIA	40
CORUÑA, A	15	SEVILLA	41
CUENCA	16	SORIA	42
GIRONA	17	TARRAGONA	43
GRANADA	18	TERUEL	44
GUADALAJARA	19	TOLEDO	45
GIPUZKOA	20	VALENTZIA	46
HUELVA	21	VALLADOLID	47
HUESCA	22	BIZKAIA	48
BALEARRAK	07	ZAMORA	49
JAEN	23	ZARAGOZA	50

Lurralde espainiarrean establezimendu iraunkor bidez jarduten ez duten ez-egoiliarak badira, 99 jarri behar da.

78-79

Alfabetikoa

HERRIALDE KODEA

Espainiako lurraldean establezimendu iraunkorrik gabe jarduten duten ez-egoiliarren kasuan, aitortuak egoitza duen herrialde edo lurraldeari dagokion kodea jarriko da, abenduaren 14ko 567/2016 Foru Aginduaren III. eranskinean jasotzen diren herrialde eta lurraldeen kode alfabetikoei jarraituz (567/2016 Foru Agindua, «Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga. Establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarren. Ez-egoiliarren kontuen aitorten informatiboa» izeneko 291 eredua onetsi, eta haren aurkezpen moduak eta herrialde eta lurraldeen kodeen zerrrenda ezartzen dituen).

Aitortuak egoiliarren badira, edo egoiliarren izan gabe, lurralde espainiarrean establezimendu iraunkor bidez jarduten badute, 78 eta 79 posizioak bete gabe utziko dira.»

80 Alfabetikoa

MERKATUKO GAKOA

Gako hauetako bat jarriko da:

- A. Espainiako bigarren mailako balore merkatu ofiziala.
- B. Atzerriko baloreen bigarren mailako merkatu ofiziala (Europar Batasuna).
- C. Espainiako beste merkatu batzuk.
- D. Atzerriko beste merkatu batzuk.
- E. Atzerriko baloreen bigarren mailako merkatu ofiziala (EBtik kanpokoa).

81 Alfabetikoa

BALOREAREN GAKOA

Gako hauetako bat jarri behar da:

- A. Entitate juridikoen kapitalean edo funts propioetan dauden akzio edo partaidetzak, merkatu antolatuetan negoziatuak.
- B. Kapital propioak hirugarrenen laga izana adierazten duten baloreak, merkatu antolatuetan negoziatuak.
- C. Inbertsio kolektiboko erakundeen kapital sozialaren edo ondare funtsaren akzio edo partaidetzak.
- D. Bizitza aseguruak (erreskate balioa dutenak soilik). Bizitza edo baliaezintasun aseguruetatik datozen aldi baterako edo biziarteko errentek erreskate baliorik baldin badute abenduaren 31n, balio hori D gakoan adieraziko da.
- E. Aldi baterako edo biziarteko errentak. Abenduaren 31ko kapitalizazio balioa baino ez da adieraziko (Ondarearen gaineko Zergari buruzko ekainaren 11ko 2/2018 Foru Arauaren 19. artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulatu), hain zuzen ere bizitza eta baliaezintasun aseguruetatik ez datozen aldi baterako zein biziarteko errentena (kapital ezarpenaren ondorioz lortutako aldi baterako zein biziarteko errentak, PFEZari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauaren 36. artikuluan aipatuak).
- F. Erreskate baliorik gabeko bizitza aseguruak.

Abenduaren 31n erreskate baliorik ez duten bizitza edo baliaezintasun aseguruetatik datozen aldi baterako zein biziarteko errentak ere adieraziko dira gako honetan.

Aldi baterako aseguruak kanpoan geratzen dira, heriotza edo baliaezintasun kasuetarako prestazioak edo bestelako arrisku berme osagarriak bakarrik estaltzen dituztenean.

Bizitza aseguruak buruz ez da informazioak eman behar heriotza arrisku bakarrik estaltzen dutenean (nahiz eta beste alor batzuetan babestutako arrisku osagarriak hartu ditzaketen) eta erreskate baliorik ez dutenean.

Aurreikuspen plan aseguruak, enpresen gizarte aurreikuspeneko planak, pentsio konpromisoak bideratzen dituzten aseguru kolektiboko kontratuak eta mendekotasun aseguru pribatuak informazioa emateko obligaziotik kanpo geratzen dira.»

82	Numerikoa	IDENTIFIKAZIO GAKOA Gako hauetako bat jarriko da: <ol style="list-style-type: none">1. Identifikazioa ISIN kodearen arabera (12 posizioko kodea).2. Atzerriko baloreak, ISIN koderik gabeak.3. Identifikazioa IFZren arabera. «Balorearen gako» eremuan (81. posizioan) «A», «B» edo «C» jarri denean bakarrik beteko da eremu hau.
83-94	Alfanumerikoa	BALOREEN IDENTIFIKAZIOA Hauek jarri behar dira: <ol style="list-style-type: none">1. ISIN kodea, Balore Merkatuko Batzorde Nazionalak abenduaren 16an onartutako 1/1998 Arau Teknikoaren arabera eta data horretako 6/1998 Zirkularrari jarraituta eratua (adibidez: «Identifikazio gako» eremua, 82. posizioa, 1 balioarekin bete denean).2. Atzerriko baloreek ISIN kodea badute, kode hori jarriko da beti. Gainerako kasuetan, «ZXX» gako idatziko da, eta «XX» herrialde igorlearen kodea izango da. Horretarako, azaroaren 27ko 1204/2001 Foru Aginduak, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren aitortpen ereduak onartzen dituenak, VIII. eranskinean jasotzen dituen herri eta lurralde kodeak erabiliko dira (adibidez: «Identifikazio gako» eremua, 82. posizioa, 2 balioarekin bete denean).3. ISIN koderik ez badago, Zerga Administrazioak emandako Identifikazio Fiskaleko Zenbakia jarriko da (adibidez: «Identifikazio gako» eremua, 82. posizioa, 3 balioarekin bete denean). «Balorearen gako» eremuan (81. posizioan) «A», «B» edo «C» jarri denean bakarrik beteko da eremu hau.
95	Alfabetikoa	ADIERAZPENAREN GAKOA Gako hauetako bat jarriko da: A: Kontuko oharpenen bitartez adierazitako baloreak. B: Kontuko oharpenen bitartez adierazi gabeko baloreak.
96-107		ZURIUNEAK
108-123	Alfanumerikoa	BALORAZIOA Aitortutako aktiboaren balioa eurotan adierazi behar da, eta dibisekin egindako eragiketen kasuan, haien kontrabalioa jarriko da. Era berean, eragiketari lotutako partaideak asko direnean, erregistro bakoitzean adieraziko da haietako bakoitzari egozgarri zaion balioa, partaidetza portzentajearen arabera. «Balorearen gako» eremuan (81. posizioan) «A» edo «B» bat jarri bada, kapital propioak hirugarrengei laga izana adierazten duten akzio, partaidetza edo baloreen balioa Ondarearen gaineko Zergari buruzko ekainaren 11ko 2/2018 Foru Arauaren 15. eta 17. artikuluetan xedatutakoaren arabera kalkulatu da. «Balorearen gako» eremuan (81. posizioan) «C» jarri bada, abenduaren 31ko likidazio balioa kalkulatzeko, Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legeak eta hura garatzen duen araudiak xedatutakoa aplikatu da.

«Balorearen gakoa» eremuan (81. posizioan) «D» jarri bada, abenduaren 31ko erreskate balioa adieraziko da.

«Balorearen gakoa» eremuan (81. posizioan) «E» jarri bada, abenduaren 31ko kapitalizazio balioa Ondarearen gaineko Zergari buruzko ekainaren 11ko 2/2018 Foru Arauaren 19. artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulatu da.

«Balorearen gakoa» eremuan (81. posizioan) «F» jarri bada, abenduaren 31ko hornidura matematikoaren balioa Ondarearen gaineko Zergari buruzko ekainaren 11ko 2/2018 Foru Arauaren 19. artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulatu da.

Eremu hau bitan banatzen da:

108 zeinua: eremu alfabetikoa, aipatu berri den balorazioaren emaitza 0 (zero) baino txikiagoa denean bete beharrekoa; kasu horretan, «N» adieraziko da. Beste edozein kasutan, eremuaren edukia espazio bat izango da.

109-123 zenbatekoa: 15 posizioko eremu numerikoa. Gorago aipatu den balorazioaren emaitza jarriko da.

Zenbatekoak eurotan adierazi behar dira. Zenbatekoak ezin du eduki inolako zeinurik aurretik (+/-), eta ezin du eraman koma hamartarrik.

Eremu hau bitan banatzen da:

109-121: Zenbatekoaren zati osoa; edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

122-123: Zenbatekoaren zati hamartarra; edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

Era berean, aitortuak asko direnean, erregistro bakoitzean haietako bakoitzaren balorazioa jarriko da, beren partaidetza portzentajearen arabera.»

124-128

Numerikoa.

PARTAIDETZA PORTZENTAJEA

Balore, aseguru edo errenten titulartasun portzentajea jarri behar da.

Eremu hau bitan banatzen da:

124-126 Portzentajearen zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

127-128 Portzentajearen zati hamartarra. Portzentajearen zati hamartarra jarri behar da. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

129

Alfabetikoa

TITULARTASUNAREN GAKOA

Gako hauetako bat jarri behar da:

T. Titularra.

N. Jabe soila.

130-146

Numerikoa

BALOREEN KOPURUA

Entitate juridikoen kapitalean edo funts propioetan aitortuak dituen akzio edo partaidetza kopuru osoa jarriko da –merkatu antolatu batean negoziatutakoena–, merkatu antolatuetan negoziatutako kapital propioak hirugarrenei lagatzea adierazten duten baloreena, edo inbertsio kolektiboko erakundeen kapital sozialeko edo ondare funtseko akzio edo partaidetzena.

«Balorearen gakoa» eremuan (81. posizioan) «A», «B» edo «C» jarri denean bakarrik beteko da eremu hau.

Eremu hau bitan banatzen da:

130-140 Baloreen zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

141-146 Baloreen zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

Era berean, aitortu asko daudenean, haietako bakoitzean adierazi behar da guztira zenbat baloretan duen aitortu bakoitzak partaidetza portzentaje bat.

147-164

Numerikoa

BALOREEN NOMINAL UNITARIOA

«Balorearen gakoa» eremuan (2. erregistroko –aitortuaren erregistroko– 81. posizioan), «A» gakoa jartzen bada, entitate juridikoen kapital sozialean edo funts propioetan aitortuak dituen akzio edo partaidetzen nominal unitarioa adieraziko da –merkatu antolatuetan negoziatutako akzio edo partaidetzena–.

Eremu hau bitan banatzen da:

147-160 Balorearen nominal unitarioaren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

161-164 Balorearen nominal unitarioaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

165-500

ZURIUNEAK

- * Edukirik ez duten eremu numerikoak zeroz beteko dira.
- * Edukirik ez duten eremu alfanumeriko/alfabetikoak zuriunez beteko dira.
- * Eremu numeriko guztiak eskuinaldetik lerrokatu behar dira, eta ezkerraldeetik zeroz beteko dira.
- * Eremuaren azalpenean bestelakorik esaten ez bada, eremu alfanumeriko/alfabetiko guztiak ezkerraldeetik lerrokatu behar dira, eta eskuinaldeetik zuriunez beteko dira. Hizki larriak erabiliko dira, karaktere berezirik gabe eta bokaletan azenturik jarri gabe.